



BERGARAKO BABES-ETXEAREN ARAUDIA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2008/04/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2008/07/21ean

Aldaketak:

1. aldaketa:

4. Artikuluko 2. ataleko n) eta c) puntuak aldatu dira.

Onartuta: Udalbatzak 2011/03/28an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2011/07/04an

AURKIBIDEA:

1. Kapitula. Sarrera.	2
2. Kapitula. Onuradunak.	2
3. Kapitula. Babes-etxean sartzeko prozedura.	5
4. Kapitula. Babesa eten eta amaitzea.	6
5. Kapitula. Erregimen ekonomikoa.	7
6. Kapitula. Utzarazpen administratiboa.	8
Azken Xedapena.	9

BERGARAKO BABES-ETXEAREN ARAUDIA

1. KAPITULUA. SARRERA.

Bergarako Udalak jakin badaki zenbait emakume, genero indarkeriaren ondorioz ohiko etxebizitza utzi behar izaten dutenean, babes barik gelditzen direla eta, horregatik, Babes-etxea jarri nahi du abian, horretarako bere jabegokoa den etxebizitza bat erabilia.

2. KAPITULUA. ONURADUNAK.

1. Artikulua. Xedea.

Genero indarkeria dela eta ohiko etxebizitza utzi behar izan duten emakumeei, babes barik geratu eta berehala laguntza beharrean geratzen baitira, babesa ematea du xede Bergarako Udalak.

2. Artikulua. Zerbitzuaren definizioa.

Babes-etxean, egoera larri jakin batzuei erantzuteko helburuarekin behin-behineko harrera egiteko zerbitzua eskainiko da, horretarako Udalak aukeratutako etxebizitzan. Egoera berezietan izan ezik, zerbitzu horrek ostatua besterik ez du eskainiko, eta Udalak Babes-etxean ez du inolako tutoretzarik egingo. Orobat, Babes-etxean ez dago bertan dauden pertsonak zaintzeko zerbitzurik. Hala ere, Gizarte Zerbitzuen Departamendua kasu guztien jarraipena egingo du.

Babes-etxea arazoak dituzten hainbat pertsonen beharrei aldi berean atenditzeko ere erabili ahal izango da, betiere etxebizitzaren tamainak eta ekipamenduak horretarako aukera ematen duenean. Babes-etxearen erabiltzaileak ezin izango du zerbitzua berak bakarrik erabiltzeko eskubidea aldarrikatu.

3. Artikulua. Babes-etxea erabiltzeko onuradunak, eskubideak eta betebeharrak.

Bergaran erroldatutako edozein pertsonak edo bizikidetzta-unitatek erabili dezake Babes-etxearen zerbitzua, alojamenturik gabeko egoera kritikoak edota elkarbizitza gatazka larriak badaude tarteko.

Araudi honen helburuetarako, larrialditzat ondorengo egoera hauek hartuko dira:

a) Genero-indarkeriaren biktima diren adin nagusiko emakumeak zein adin txikiko emantzipatuak, bakarrik edo haien ardurapean dauden pertsonekin, betiere bizikidetzta-unitate berekoak badira.

b) Genero-indarkeriarekin lotutako tratu txar fisiko zein psikologikoak direla-eta, familia-harremanak jasanezinak direnean.

Beraz, aurreko egoerei lehentasuna emango zaie. Hori dela eta Babes-etxea libre dagoenean bakarrik, eta Udalak beharrezkoa dela baderitzo, ondorengo egoeretan daudenei ere eman ahalko zaie zerbitzua:

c) Jurisdikzio zibilean burututako prozeduren ondoriozko epai irmoak agindutako maizterbotatzeak, dela baliabide ekonomikorik ezean etxebizitza ez ordaintzeagatik, dela jabearen premiagatik, hondamen-deklarazioagatik edo antzekoengatik.

d) Harrera behar duen edo duten pertsona(k) bizi ziren eraikina aurri egoeran dagoela dioen Udal deklarazioa.

e) Bizikidetz-unitatea bizi den eraikina erabiltzea galarazten duten hondamendi, sute, uholde edo antzeko fenomenoak.

f) Udalak zehaztutako beste larrialdi-egoera batzuk.

Halaber, beste Udalerri batzuetako pertsonak ere sartu ahal izango dira Babes-etxean, eskatzailea erroldatuta dagoen Udalak edo erakunde eskudunak hala eskatuz gero. Kasu horretan, dagokion tasa ordaintzeko konpromisoa hartzeaz gain, larrialdiko babesa Bergaran jaso behar izateko arrazoiak azaldu beharko ditu erakunde horrek. Nolanahi ere, pertsona horri babesa ematean, zerbitzua eskatu duen Udalak edo erakunde eskudunak ere horrelako premiei erantzuteko baliabide propioak dituela begiratu da, Bergarako Udalak ere, behar izanez gero, zerbitzu horiek erabili ahal izateko.

Salbuesenez, ezohiko arrazoiak direla eta, erroldatuta egoteko eskakizuna betetzen ez duten pertsonak ere baliatu ahal izango dute Babes-etxeaz, bere Udalak eskabide hori egin ez badu ere.

4. Artikulua. Babes-etxea erabiltzen dutenen eskubideak eta betebeharrak.

4.1. Eskubideak:

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren Lehenengo Ataleko II. Kapitulua Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutuna eta iradokizun eta kexen araubidean jasotakoaz gain, Babes-etxearen erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Babes-etxean egoteko eskubidea, eskabidea eragin duen egoera kontuan hartuta, araudi honetan egonaldia amaitzeko adierazitako arrazoiren bat agertzen ez den bitartean.
- b) Ahal den neurrian, bizikidetz-unitatea osatzen duten kide guztiak elkartu eta elkarrekin egoteko eskubidea.
- c) Babes-etxeko instalazioak eta erabilera komuneko objektuak, ekipamenduak eta tresnak erabiltzeko eskubidea.
- d) Zerbitzua EAeko bi hizkuntza ofizialetako batean jasotzeko eskubidea.
- e) Norberaren borondatez Babes-etxean egoteari uzteko eskubidea.

4.2. Betebeharrak:

Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuaren Bigarren Ataleko II. Kapitulua Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutuna eta iradokizun eta kexen araubidean jasotakoaz gain, erabiltzaileek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Sartzeko eskaeraren dokumentua sinatzea, eta araudi honetan eta eskaera-dokumentuan ezarritako arauak betetzeko konpromisoa hartzea.

- b) Babes-etxearen erabilera eragin duen egoera zuzentzeko beharrezko gestio administratiboak eta/edo judizialak eta/edo bestelakoak burutzekoak. Gizarte Zerbitzuen Departamenduaren iritziz, komenigarria balitz birgizarteratzeko ibilbidea edo gizarte-heziketako bestelako esku-hartzerik ezartzea, esku-hartze horien ezaugarriak harrera-agirian edo berari erantsitako, eta bere osagai izango den, beste dokumentu batean azaldu ahal izango dira. Kasu horietan, onuradunak esku-hartze horiek onartzen dituela espresuki adierazi beharko du.
- c) Bergarako Udalak baimendu ez dituen pertsoneri Babes-etxean sartzen ez uztekoa, erabiltzailearekin duen ahaidetasuna edo harremana edozein dela ere. Araudi hau aplikatuta Babes-etxea erabiltzen utzi zaienaz aparte, beste inork ezin izango du gaua Babes-etxean pasatu.
- d) Eraikineko erabilera komuneko elementuak, hots, eskailerak, ataria eta, oro har, zerbitzua aprobetxatu eta gozatzeko bitarteko guztiak arretaz, kontuz eta arduraz erabiltzekoak.
- e) Lagun arteko jokabide-arauak betetzekoak, bizikidetza kaltetu gabe, horretarako auzokideen eta gainerako erabiltzaileen lasaitasuna oztopatu dezakeen ezertan jardun gabe.
- f) Auzokideen komunitatean onartutako arauak betetzekoak, eskailerak garbitzea barne hartuta, komunitateak finkatutako tarte eta/edo txandetan. Konpromiso ekonomikoak eragiten dituzten arauak salbuetsita daude betebeharrak.
- g) Aldez aurreko baimenik gabe, ezin izango da Babes-etxean altzaririk edo etxeko tresnarik sartu; erabilera pertsonaleko gauzak soilik sartu ahal izango dira.
Halaber, Babes-etxean ezin izango da animaliarik sartu edo higienearen aurkako materialik gorde. Arma edukitzea espresuki debekatuta dago.
- h) Gizarte Zerbitzuetako pertsonalari edo berak baimendutako beste pertsona batzuei Babes-etxean sartzen uzteko betebeharra.
- i) Babes-etxean irabazizko jarduerarik ez egitekoa.
- j) Babes-etxeko giltzen kopiarik ez egin eta giltzak inori ez uztekoa. Egonaldia amaitzean, giltzak Udalaren esku utzi behar dira, erabiltzaileak Babes-etxea uzten duen egun berean.
- k) Biztanleen Udal Erroldan izena ez ematea helbide hori erabilita, ez zerbitzuaren titularrak ez beste inork. Babes-etxearen helbidean nor erroldatu daiteken Udalak soilik erabaki dezake, inoiz ere ez erabiltzaileak.
- l) Zerbitzuaren helbidea anonimatuan gordetzea.
- m) Zenbait bizikidetza-unitatetako kidek babes-etxea partekatu dezaketenez, Gizarte Zerbitzuetako Teknikariek esandako logela(k), ohea(k), izarak eta toallak soilik erabili ahal izango dira.
- n) Halaber, partekatze hori gertatuz gero, elkarrekin bizitzeko arauak bete beharko dituzte, garbitasunari, higienari, ordutegiari eta abarri dagokienez. Nork bere seme-alaben ardura hartuko du, baldin baditu, baita bere gelaren ordena eta garbitasunaren ardura eta bere gauza pertsonalen ardura ere. Erabilera komuneko elementuei lotutako etxeko lanei dagokienez (korridorea, atondoa, sukaldea, bainugela, balkoiak, etab.), etxekideek akordioak hartu eta bete beharko dituzte.
- o) Erabiltzaileen arteko gatazka edo desadostasunak izanez gero, Gizarte Zerbitzuetako pertsonalak neurri egokiak hartuko ditu, eta erabiltzaileek erabaki horiek onartu eta bete beharko dituzte.
- p) Babes-etxearen gainerako erabiltzaileen pentsamendu, iritzi eta ideologia-askatasuna errespetatzeko betebeharra, nork bere iritzia adierazteko eskubidea izanda.
- q) Erabiltzaileek ezin izango dute Babes-etxeko telefonoa erabili larrialdi batean ez bada. Babes-etxeko telefonoa soilik Bergarako Udal teknikoek deialdi jasotzeko izango da. Gainera, telefono horren zenbakia anonimatuan mantendu beharko dute.
- r) Babes-etxean eskuragarri dituzten objektuak, ekipamenduak eta tresnak egokiro eta errespetuz erabiltzea.
- s) Babes-etxean sartzean, bertan dauden elementu eta ondasunen inbentarioa sinatzeko betebeharra. Egonaldia amaitzen denean, inbentarioa berrikusi eta etxebizitza eta altzariak

egoera onean daudela egiaztatuko da. Matxuraren bat izanez gero edo inbentarioan jasotako elementuren bat egongo ez balitz, hori konpondu edo ordezkoa erosteko gastua erabiltzailearen kontura joango da. Gastu horiek ordaintzeko epea eta baldintzak inbentarioaren dokumentu berean agertuko dira.

- t) Babes-etxean nahita edo zabarkeria larriagatik eragindako kalteez erantzutea.
- u) Gizarte Zerbitzuen Departamenduari etxebizitzan dagoen edozein matxura edo konpondu edo hobetu beharreko elementuren berri emateko betebeharra. Ildo horretan, aldezturik baimena eman gabe debekatuta dago aipatutako arazoa konpontzeko esku hartzea. Hala ere, Babes-etxean egon daitekeen matxura konpondu ahal izango da zerbitzuaren erabiltzailearen ekimenez, baldin eta arazoaren konponbidea premiazkoa izanez gero eta jaiegunean edo Udal Zerbitzuen ordutegiz kanpo gertatuz gero. Horrelako kasuetan, Udal Zerbitzuei lehenbailehen eman beharko zaie egindako konponbidearen berri. Ondoren Udalak erabakiko du erantzunkizuna.
- v) Finkatutako tasa ordaintzeko betebeharra, araudi honetan ezarritakoaren arabera.
- w) Gizarte Zerbitzuek landutako plan indibiduala edota familia-plana betetzea.

5. Artikulua. Harreraren iraupena.

Babes-etxean harrera ematea onartuz gero, alkatearen ebazpenak jasoko du harreraren iraupena. Harrera eragin duen egoeraren nondik norakoak eta konpontzeko posibilitateak hartuko dira aintzat iraupena zehazteko. Nolanahi ere, harreraren gehieneko iraupena 6 hilabetekoa izango da, erabiltzailea etxebizitzan sartzen den egunetik kontatzen hasita. Epe hori soilik luzatu ahal izango da alkatearen beste ebazpen baten bidez, eta ebazpen horrek zehaztuko du luzapenaren iraupena. Horretarako premia dagoela aldezturik egiaztatu eta Gizarte Zerbitzuen Departamenduak aldeko txostena egin beharko du.

3. KAPITULUA. BABES-ETXEAN SARTZEKO PROZEDURA.

6. Artikulua. Ohiko prozedura.

Interesdunak hala eskatzen duenean hasiko da prozedura. Horretarako, Bergarako Udaleko organo eskudunari zuzendutako inprimaki normalizatua bete eta eskatzaileak edo haren legezko ordezkariak sinatuko du. Inprimakia aurkeztuko da Udaleko Erregistro Orokorrean edo Estatuko Administrazio Orokorreko edo Autonomia Erkidegoetako beste edozein administrazio-organotako erregistroan, baita, horretarako hitzarmena izanez gero, Tokiko Administrazioa osatzen duten erakunde batean, Posta-bulegoetan eta Espainiak atzerrian dituen ordezkarietza diplomatikoetan edo kontsuletxeetako bulegoetan ere.

Interesdunak bere eskabidea atzera bota ahal izango du prozesuko edozein unetan. Hori idatziz egin beharko du eta, hala egiten duenean, espedientea artxibatu egingo da.

Eskabidearen tramitazioa eta balorazioa Gizarte Zerbitzuetako teknikariek egingo dituzte. Teknikariek nahitaezko txostena egingo dute, eta txostenak ondorengoak adieraziko ditu:

- Babestu beharreko pertsonaren edo pertsonen nortasunari buruzko datuak.
- Zerbitzuaren eskatzailearekin bizi diren gainerako pertsonen nortasunari buruzko datuak.
- Babes harrerarako arrazoiak.
- Babestutako pertsonen egoera ekonomikoa.

- Babesa onartzeko komenigarritasunaren balorazioa eta, positiboa izanez gero, babesa emateko proposatutako denbora.

Bai txostena eta bai bertan azaldutako zirkunstantzia guztiak egiaztatzeko dokumentazioa espedienteari erantsiko zaizkio.

Azkenik, Alkateak ebazpen arrazoitua emango du, Babes-etxean sartzeko eskabidea onartuz edo ezeztatuz.

Eskabidea udal erregistroan sartzen denetik, gehienez, bi hilabeteko epean emango da ebazpena. Epe hori eten egingo da eskabideari zuzenketak egin behar zaizkionean. Zuzendu beharrekoaren jakinarazpenetik zuzenketa gauzatu bitartean iraugo du etenaldiak edo, hala dagokionean, zuzenketa egiteko emandako epea bete bitartean.

Aurreko atalean zehaztutako epea amaitzen denean ebazpenik ez badago, nahiz eta ebazpena derrigorrezkoa izan, eskabidea ezeztatua izan dela ulertuko da. Kasu horretan, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango du.

Nolanahi ere, Gizarte Zerbitzuen Departamenduak kasu bakoitzerako egindako dokumentua formalizatu beharko du eskatzaileak. Dokumentu hori formalizatu ezean, eskatzaileak zerbitzuari uko egin diola ulertuko da.

4. KAPITULUA. BABESA ETEN ETA AMAITZEA.

7. Artikulua. Zerbitzuaren behin-behineko etenaldia.

Organo eskudunak Babes-etxearen zerbitzuaren behin-behineko etenaldia erabaki ahal izango du, Gizarte Zerbitzuen Departamenduak hala proposatuta eta dagokion espedientearen instrukzioaren ostean, eta alde zuzenetik interesdunari entzunda. Ebazpena interesdunari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari jakinaraziko zaie, legeak agindutako epean eta forman.

Zerbitzua honako arrazoi hauengatik eten ahal izango da:

- a) Gizarte Zerbitzuetako pertsonalari edo berak baimendutako beste pertsona batzuei Babes-etxean sartzen ez uzteagatik.
- b) Babes-etxearen erabilera desegokia edo gehiegizkoa egiteagatik. Erabilera desegokitzat honako ekintza hauek hartuko dira: bizikidetzak eta elkarrekiko errespetu-arauak haustea; edonori Babes-etxearen helbidearen berri ematea; kontratuan baimenduak ageri ez diren pertsonak Babes-etxean sartu eta egotea; zerbitzuko edo auzokide-komunitateko instalazioak eta bitartekoak oker erabiltzea; zerbitzuko jarduerak oztopatzea; era guztietako gatazkak eragin edo horietan parte hartzea; gainerako egoiliarak edo eraikineko biztanleak irainez, biraoz edo errespetu-faltaz tratatzea; edozein objektu lapurtzea; norberaren nahiz gainerako erabiltzaileen eta eraikineko biztanleen segurtasuna nahita arriskuan jartzea. Gehiegizko erabileratzat, berriz, Babes-etxeko ura, gasa edo beste edozein hornidura neurritz kanpo erabiltzea hartuko da.
- c) Zerbitzuari dagozkion bi ordain-agiriren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzeagatik.

Behin ebazpenak agindutako etenaldia amaituta, zerbitzuaren erabiltzailea Babes-etxean sartu ahal izango da berriro, baina etenaldiak ez du eragingo aurretik finkatutako egonaldia proportzionalki luzatzea.

Zerbitzua etenda egon den bitartean, erabiltzaileak prezio osoa ordaindu beharko du, ordaintzetik salbuetsita ez badago.

Etenaldia agintzen denean, ebazpenak adierazitako epean ordaindu beharko du zerbitzua erabiltzaileak.

8. Artikulua. Zerbitzuaren amaiera.

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik amaituko da:

- 1) Babesa emateko aurreikusitako epea agortu delako.
- 2) Erabiltzaileak zerbitzuari uko egin diolako.
- 3) Heriotzagatik.

Horretaz gain, dagokion espedientearen instrukzioaren ostean eta Gizarte Zerbitzuen Departamenduak hala proposatuta, aurreikusitako data baino lehenago amaitzea erabaki ahal izango da Alkatearen ebazpenaren bidez, aurrez interesdunari entzunda eta ebazpena onuradunari jakinarazita, honako arrazoi hauengatik:

- a) Zerbitzua emateko beharraren arrazoa desagertu delako.
- b) Zerbitzua emateko aintzat hartu diren datuak ezkutatu edo faltsutu egin direlako.
- c) Erabiltzaileak zerbitzua jasotzeko bete beharreko eskakizunen bat galdu egin duelako.
- d) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eman beharreko dokumentazioa ez emateagatik.
- e) Beste erabiltzaile batzuei edo udal langileei eraso fisiko edo psikologikoa egiteagatik.
- f) Zerbitzuari dagozkion hiru ordain-agiriren ordainketa arrazoirik gabe atzeratzeagatik.
- g) Erabiltzaileak araudi honetan jasotako gainerako betebeharren bat behin eta berriro hausteagatik.
- h) Bi egunetan baino gehiagotan Babes-etxean ez agertzeagatik, ospitaleratzea edo halabeharrezko bestelako arrazoiren bat justifikatu gabe. Epe hori luzatu ahal izango da egoera berezietan, eta dagokion txosten teknikoan justifikatuko dira egoera horiek.
- i) Araudiko edozein agindu hautsi izanaren ondorioz, Babes-etxearen beste erabiltzaile batzuk arriskuan jartzeagatik.

Zerbitzuaren amaiera aginduta, erabiltzaileak Babes-etxea utzi egin beharko du ebazpenak agindutako epean.

Horretaz gain, artikulua honen b), d), e), f), g), h) eta i) kasuetan zerbitzuaren tasa osoa ordaindu beharko du (dagokion ordenantza fiskalean onartutakoa), ordaintzetik salbuetsita ez badago.

5. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA.

9. Artikulua. Tasa.

Zerbitzuarengatik ordaindu beharreko gehieneko prezioa urtean finkatuko da, dagokion ordenantza fiskalean.

10. Artikulua. Erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak.

Erabiltzaileek ez dute inolako tasarik ordaindu beharko, hauetako egoeraren batean egonez gero:

- a) Genero-indarkeriaren biktimak izanez gero, haien diru-sarreraren zenbatekoa edozein izanda ere.
- b) Babesaren helburua erabiltzailea balizko eraso fisiko, psikologiko, sexual edo bestelakoen aurrean zaintzea izanez gero, haien diru-sarreraren zenbatekoa edozein izanda ere.
- c) Bizikidetzta-unitatearen diru-sarreraren zenbatekoa eskabidea egiterakoan indarrean dagoen Oinarrizko Errentaren parekoa edo txikiagoa izanez gero, bizikidetzta-unitateko kide kopuru berarentzat.

Bizikidetzta-unitateak tasaren % 100 ordainduko du ondoko kasu hauetan:

- Bizikidetzta-unitateko kide-kopuruari dagokion Oinarrizko Errentaren % 200eko diru-sarrerak edo handiagoak izanez gero.
- Babesa eragin duen ezbehar edo egoeraren gastuak estaliko dituen aseguru bat izanez gero, aseguraturako kontzeptuen artean ostatu alternatiboa sartzen den bitartean.
- Bizikidetzta-unitateak, Babes-etxean dagoen bitartean, ostatuaren gastuak estaltzeko helburua duten dirulaguntza publikoa edo pribatua jasotzen badu.
- Zerbitzuaren eskabidea beste erakunde batek egin badu, araudi honetako 2. artikuluan jasotako terminoetan.
Bizikidetzta-unitateak tasaren % 75 ordainduko du honako kasu honetan:
- Bizikidetzta Unitateko kide-kopuruari dagokion Oinarrizko Errentaren % 150etik gorako eta % 200en pareko edo hortik beherako diru-sarrerak izanez gero.
Bizikidetzta-unitateak tasaren % 50 ordainduko du ondorengo kasu honetan:
- Bizikidetzta Unitateko kide-kopuruari dagokion Oinarrizko Errentaren % 100etik gorako eta % 150en pareko edo hortik beherako diru-sarrerak izanez gero.

Babes-etxean bizikidetzta-unitate bat baino gehiago baleude, Udalak erabakiko du zein era proportzionalean ordaindu beharko duten ordaindu beharra daukatenek, suertatzen den egoeraren azterketa egin ostean.

11. Artikulua. Zerbitzuaren erabilerak eragindako gastuak.

Komunitateko gastuak eta Babes-etxea konpondu eta hobetzeko helburuz egindakoak Udalak ordainduko ditu, babestutako pertsonak eragindako gastuak izan ezean. Orobat, higiezinaren jabetzari eta erabilerari lotutako tasa eta zerga guztiak Udalaren kontura joango dira, zabor-bilketako tasak barne hartuta.

Halaber, argindarraren, gasaren eta uraren gastuak ere Udalaren kontura joango dira. Hala ere, Udalak egoki deritzon neurriak hartu ahal izango ditu erabiltzaileen hornidura horien gehiegizko gastua ekiditeko eta, hala dagokionean, gehiegizko gastuak eragindako kalteak zuzentzeko. Horrek guztiak ez ditu eraginik gabe utziko 7. artikuluan aurreikusitako erabilera desegokiaren ondorioak.

6. KAPITULUA. UTZARAZPEN ADMINISTRATIBOA.

12. Artikulua. Utzarazpen administratiboa.

Araudi honetan jasotako arrazoietak batek eraginda edo onartutako epea agortzeagatik Babes-etxea utzi behar duen erabiltzaileak utzi nahi ez balu, utzarazpen administratiboaren bidez uztera behartu ahal izango zaio, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiaren 120. eta hurrengo artikuluek edo ordezeko arauak aurreikusitako prozeduraren bidez.

13. Artikulua. Erantzukizunak.

Udala edota teknikari arduraduna inoiz ere ez dira izango erantzule, Babes-etxean bizi diren pertsonen utzitako diruak edo baliozko beste objektu batzuk galdu, lapurtu edota desagertuz gero.

14. Artikulua. Araudi honetan espresuki jasota ez dauden auzien gaineko erabakiak.

Alkatetzak honako araudia aplikatu eta garatzeko beharrezko diren arauak hartzeko ahalmena izango du, hala nola beronen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

AZKEN XEDAPENA.

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik 15 egunetara sartuko da indarrean.